

9.- KOSTUEN EGITURA

Guk izango ditugun kostuen egiturak hauek izango dira:

KOSTU FINKOAK

- **Alokairua:** Gure lanean aritzeko lokala, udaletxe edo dagokion instituzioari eskatuko diogu, posible balitz, eraikuntza publikoa erabiliz. Egiten dugun hitzarmenaren arabera, alokairua ordaindu beharra izango dugu ala ez. Alokairua ordaindu beharra izango bagenu, kostu finkoetan sartuko genuke.
- **Lokalaren erabileratik eratorritako bestelako gastuak:** ura, argia, basura, elektrizitatea.150-200 euro hilabete eta fakturen arabera.
- **Berogailua:** haurrak goxo egon daitezen erabiliko dugu 50-100 euro hilabetearen arabera.
- **Telefonoa, internet eta wiffi-a:** 50-60 euro.
- **Soldatak:** instituzioekin adostutakoaren arabera ezarriko ditugu. Berdinak izango dira hilabetero. Gure proposamena:

Hezitzaileak: 1500 euroko soldata. Hasiera baten 4 hezitzaile izango ginateke, beraz, 6000 euro guztira. Hala ere, guztirakoa hezitzaile kopuruaren araberrako aldatuko da.

Koordinatzailea eta arreta zerbitzu arduraduna: 1500 euro.

Informatikoa: 1500 euro.

Guztira soldaten gastu finkoa hileroko 9000 eurokoa izango da.

Garbitzailea,udaletxeak hitzartutako kontratu bat izango du eta hitzarmenak dionaren arabera ordainduko zaio.1200 euro inguru

KOSTU ALDAKORRAK

- **Garbiketarako materiala:** erratza,pala,fregona eta garbiketa produktuak 20 euro.
- **Botikina:**30 euro.
- **Materiala:**
 - Hasierako materiala: kontuan izan behar dugu gela ez dela egokitua egongo eta altzairuak eta beharrezko materiala erosi beharko da.
 - Altzairuak:
Pikler materiala, alda-tokia, biberioak emateko lekua,lo egiteko lekua, ohatzeak, koxiñak, arranpa, labirintoa eta koltxonetak.2000 euroko gastua izango da.
 - Haurrentzako materiala:
Ipuinak, jolasak, margotzeko materiala, arbela, musika aparatua ,mozorroak , jostailuak, margoak, folioak, etab gure hurrei kalitatezko zaintza emateko.500 euroko gastua
 - Materiala gastatu edo puskatzen denean berritzen joan beharko da.
- Ordenagailua etxean duguna erabiliko dugu gasturik ez sortzeko.

Hezitzaile kopuruak izango du eraginik nabarmenena gastuen aldaketan, zenbat eta hezitzaile gehiago, soldata gehiago direlako, eta ondorioz, kostuak ere. Hori eskariaren araberakoa izango da.

- **Eskala ekonomia:** Gure kasuan hau ez da ematen, gure eskaintza handitzean ez da kostuen murrizketarik ematen, berdin mantenduko dira eta hezitzaile gehiago behar direnez soldata gehiago gestionatu beharko dira.

- **Zabalkunde ekonomikoa:** Etorkizun batean gure eskaintza Euskal herriko beste herri edo hiri batera zabaldu genezake, bilakaera ona balu lehenengo pausu honek.